

## NAZIOARTEKO ATERPEKIDE TXARTELA

Estatuko zein atzerriko aterpetxeetan har dezakete ostatu **edozein adinetako** pertsonak, aterpekide-txartela izanez gero.

Txartelak **urtebete irauten du**, hau da,

2008/12/01ean egindako txartelak

2009/12/01ean galtzen du balioa.

Txartel hau nazioartekoa da, beraz, **atzerritik**

datozenek, beraien herrialdean eskuratutako txartela ekar dezakete edo ostatu hartzeko ongietorri-seiluak (welcome stamps) erosi. Seiluak nazioarteko aterpetxeetan ematen dira. Behin-behineko txartel bat da. Aterpekideak seiluak erosi behar ditu, gauero bat edo denak batera. Sei seilu dituenean, txartel baten balioa hartzen du. Txartel horrek 12 hilabete irauten du, lehenengo seilua erosten denetik. Tasa 3 eurokoa da.

### **Non eskatu**

Txartela **Internet** bidez (orrialde honetan dago formularioa), nazioarteko txartelak egiten dituen edozein **Gazte Informazio Bulegotan** edo REAJek Euskadin dituen Gazte-aterpetxeetan eska dezakezu. Txartela jasotzeko nahitaez bulego batera joan behar da.

Zalantzarik baduzu, ordainketa egin aurretik, bulego batean galdetu edo gazteria@ej-gv.es helbidera posta elektronikora mezu bat bidali. Gogoratu ordainketa egin ondoren ez zaizula tasa itzuliko.

### **Nola eskuratu txartela**

#### **1.- Eskaera**

Zure txartela eskatzeko, formularioa bete zure datuekin eta eskaera-orria inprimatu. Beste aukera bat da txartelak egiten dituen edozein Gazte Informazio Bulegotara edo aterpetxetara jotzea eta bertan emango dizute zure eskaera-orria.

Aukera ezazu **dagokizun formularioa** eta bertan zure datu pertsonalak bete itzazu:



- Gazteentzat, Gazte-txartelarekin  
Adina: 14 eta 30 urte bitartean  
Tasa: 2,5 euro.  
Posta bidez jasotzeko aukera: Aldez aurretik txartela izanez gero, bai.
- Gazteentzat  
Adina: 14 eta 30 urte bitartean  
Tasa: 5 euro  
Posta bidez jasotzeko aukera: Aldez aurretik txartela izanez gero, bai.
- Helduentzat  
Adina: 30 urtetik gora  
Tasa: 11 euro  
Posta bidez jasotzeko aukera: Bai.
- Familientzat  
16 urtetik beherako seme-alabadun familia-unitatea  
Tasa: 22 euro  
Posta bidez jasotzeko aukera: Ez. Aurkeztu beharreko agiria: Familia liburua.
- Taldeentzat  
Gutxienez 10 pertsona, arduraduna barne  
Tasa: 15 euro  
Posta bidez jasotzeko aukera: Ez. Aurkeztu beharreko agiria: Kideen izenak.
- javascript:abrirFormulario(%22O79Redirect.jsp?TARGET\_PAGE=O79Formularios  
CarnetsServlet?TIPO\_CARNET=7&COD\_IDIOMA=E%22)Gazteria eta Gizarte  
Ekintza Zuzendaritzako Gazte-Elkarteen Erroldan izena emandako taldeentzat  
Gutxienez 10 pertsona, arduraduna barne  
Tasa: ez da ordaindu behar tasarik (txartel hau doan eskuratzeko Gazteria eta  
Gizarte-Ekintza Zuzendaritzako Gazte-elkarteen Erroldaren ziurtagiria aurkeztu  
behar da).  
Posta bidez jasotzeko aukera: Ez.

## 2.- **Dagokion tasa ordaindu** eta ordainketaren agiria gorde.

Internet bidez eskatzen baduzu, ordainketa **Interneten** (formularioaren urratsak jarraituz) edo **banku sukurtsal batean** egin dezakezu. Ordainketa Internetez egin dezakezu Nire Ordainketan sartu eta lehenengo pantallan BPK hau aukeratuz: 9050794. Ondoren, zure banku-kitapenaren orriaren behealdean agertzen diren datuak pantallan sartu behar dituzu (nola funtzionatzen duen ikus dezakezu demo honetan).

Eskaera bulegoan egiten baduzu zure eskaera-orria eraman behar duzu banku sukurtsal batera.

### 3.- Txartela jasotzeaz

Ondorengo bi modutan jaso dezakezu zure txartela:

- **Posta bidez.** Aukera hau erabiltzen baduzu, txartela 8 egunen buruan etxean jasoko duzu. Aukera hau aterpekide-txartel heldua, gaztea gazte-txartelarekin eta aterpekide-txartel gaztea modalitateetan dago. Azken bi horietan, eskatzaileak adina eta baldintzak betetzen dituela egiaztatu beharko du aplikazioak.
- [http://www.gazteukera.euskadi.net/r58-801/eu/contenidos/informacion/sociedad\\_info\\_juven/eu\\_1794/informacion\\_e.html](http://www.gazteukera.euskadi.net/r58-801/eu/contenidos/informacion/sociedad_info_juven/eu_1794/informacion_e.html)Txartela jasotzea **edozein bulegotan**, hau da, Araba, Bizkaia edo Gipuzkoako gazteentzako informazio zerbitzuetan edo REAJek Euskadin dituen gazte-aterpetxeetan. Txartela jasotzeko, ezinbestekoa da adina eta baldintzak egiaztatzen dituzten dokumentuak aurkeztea